

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **146/2020 Foru Agindua, uztailaren 8koa, zeinaren bidez Aguraingo HAPOko "Curtidos Harresi" UE-49.1 egikaritze unitate etenaren Hitzarmen Batzarra inskribatzen baita Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan**

Lehenengoa. 2019ko maiatzaren 8an, Aguraingo Udalak eskaera aurkeztu zuen Ingurumen eta Hirigintza Sailean, udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko "Curtidos Harresi" UE-49.1 egikaritze unitate etenaren Hitzarmen Batzarra inskribatzeko Arabako Lurralde Historiko Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan.

Bigarrena. Aurkeztutako agiriak aztertuta, ikusi zen hutsak zeudela bai izapideetan bai agiriaren edukian. 2019ko ekainaren 8an, Aguraingo Udalarari errekerimendua egin zitzaion, hutsak zuzen zitzan.

Hirugarrena: Errekerimenduari erantzuteko, 2020ko ekainaren 22an, Aguraingo Udalak bidali zuen tokiko gobernu batzarrak 2020ko ekainaren 10ean egindako bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez aho batez onesten baita Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko "Curtidos Harresi" UE-49.1 egikaritze unitate etenaren Hitzarmen Batzarraren eraketa zuzentzeko eskritura, Euskal Autonomia Erkidegoko notarioen elkargoko notario Luis Troyano de Loma Ossorio jaunaren aurrean (Vitoria-Gasteizko barrutia) emana 2020ko martxoaren 4an.

Erantsi zuen zuzenketa eskrituran, zuzendaritza organoko kargudunak izendatzen dira, eta honako hauek berresten: Hitzarmen Batzarraren eraketa; Estatutuak eta kudeaketa hitzarmena, zeinak behin betiko onetsi baitzituen udalak 2019ko apirilaren 3ko tokiko gobernu batzarraren erabakiaren bidez; eta udalak egikaritze unitatearen jabeekin izenpetutako hitzarmenak. Hitzarmen Batzarraren eraketari buruzko iragarkia erantsi zen (ALHAO, 50. zenbakia, 2020-05-06koa), bai eta egoeraren plana ere, 1:5000 eskalakoa.

Espedientearen formaren eta prozeduraren zuzentasunari buruzko txosten arrazoitua egin zuen Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak, eta batzarra erregistroan inskribatzeko proposamena egin zuen.

#### ONARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Aguraingo HAPOko "Curtidos Harresi" UE-49.1 egikaritze unitate etenaren Hitzarmen Batzarrak betetzen ditu Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 160. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak.

Bigarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuari dagokio Hitzarmen Batzarra Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba dadin agintzeko eskumena, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa aplikatuz.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzea Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko "Curtidos Harresi" UE-49.1 egikaritze unitate etenaren Hitzarmen Batzarra, Euskal Autonomia Erkidegoko notarioen elkargoko notario Luis Troyano de Loma Ossorio jaunaren aurrean (Vitoria-Gasteizko barrutia) 2020ko martxoaren 4an emandako zuzentze eskriturari jarraikiz (protokolo zenbakia: 139), zeina onetsi baitzen Aguraingo Udaleko tokiko gobernu batzarrak 2020ko ekainaren 10eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gain, nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioko ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera, edo egoki jotzen den beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 8a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*